


BizkaIdatz XV
Literatura saria
(2023)

“JARRAITZEKO PREST?
ORAIN ZURE TXANDA DA”

*Oinarriak barrualdean



MARLON

jabi_elortza



Jabi Elortza



76.565



Partekatu



Gorde

Harpidetu

Bilbon, Miribilla auzoan, bizi naiz orain dela hamaika urte.

1973ko apirilaren 27an jaio nintzen Bilbon eta bertan bizi izan nintzen, 29 urterekin Gorlizera, lehenik, eta Santurtzira, ondoren, joan nintzen arte.

Bizkaia ikastetxean egiten dut lan, 27 urte daramatzat bertan eta, euskera irakaslea izateaz gain, DBHko 4. mailako tutorea eta DBHko koordinatzailea naiz.

Ezkonduta nago eta bi seme-alaba ditut, 13 eta 10 urtekoak.

Orain arte hiru liburu argitaratu ditut Elkar argitaletxean Taupadak bilduman. Hirurak nerabeentzako nobela beltzak.

- Sara (2017)
- Kinito egunak (2019)
- Gezurren habia (2021)

Bizkaldatz XV.
Literatura saria

MARLON

JABI ELORTZA

© Jabi Elortza Antia, 2023

© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia.

Antolatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Koordinazioa eta diseinua: Álex Oviedo

Azala: Mikel Apodaka

Lehenengo edizioa: 2023ko apirila

LG BI 304-2023

—Nor izango da hurrengoa? Marlon? Bai, zuri dagokizu. Marlonek ez du tutik esan orain arte, isil-isilik egon da. Ez duzuela ezagutzen uste dut, oso egun gutxi darama hemen eta bere istorioa lehendabiziko aldiz kontatuko digu gaur, beraz pribilegiatuak garela ere esan genezake, ezta Marlon?

—Pribilegiatuak, ziur? Alderantziz esango nuke, zoritxarrekoak hobeto.

—Ez iezaiozue jaramon egin. Gazte askok emango lukete duten guztia gaur hemen egoteagatik, Marlonen istorioa entzuten.

—Ertzaintzak ere bai, ziur.

Elortegi doktoreak barreari eutsi behar izan zion aulkiez osatutako borobil hartan eserita zeuden pazienteen aurrean terapiaren seriotasuna ez galtzarren.

—Animo, Marlon, zurea da hitza.

—Kaixo, Manex naiz, Manex Malanda. Nire benetako izena hori dela esan nahi dut: Manex Malanda. Hala ere, urte asko dira inork ez didala horrela deitzen. Marlon ere deitu ahal didazue. Atzean utzi nahi dudan zerbait da, harro sentiarazten ez nauen zerbait baina, beharbada, izenarena gutxienekoa da. Nahi duzue-na, Manex, Marlon... azken batean berdin da. Ez zaizkit ez bata ez bestea gustatzen. Manex ez zait inoiz gustatu, inoiz ez. Marlon orain dela gutxira arte bai, gustatu egiten zitzaidan, asko. Orain, aitzitik, gorroto dut, beraz, nahi duzuen bezala deitu.

Hogeita lau urte ditut eta bi egun daramatzat hemen ingesatuta. Ez dut hemendik atera nahi, ospitaletik. Ez dut etxera itzuli nahi, ez dut nahi. Hemen hobeto nago. Urteak dira, urte asko, gurasoak eta hirurok ez garela familia bat, ez dugula familia bat osatzen. Orain dela asko, baina duela gutxi ohartu naiz.

Atzera egin nahi nuke denboran, hamaika urte bete nituen egunera. Atzera egin eta bizitza berri bat eraiki. Lehen, egun hura baino lehen, genuen bizitza berreskuratu.

Nire istorioa kontatuko dizuet baina alferrik izango da. Honek

ez du konponbiderik, ez du. Hobeto sentituko naizela esan didate medikuek, ez dakit, beharbada bai, kontatzen dudan bitartean hobeto sentituko naiz, baina gero... Gero berriz ere errealitatea, berriz ere infernua.

—Animo, Manex, dena konpondu ahal da, dena. Jarraitu zure istorioarekin —Elortegi doktoreak.

—Ez, dena ezin da konpondu, dena ez.

—Ikusiko dugu amaieran, segi, Marlon.

—Ulertzeko, dena ondo uler dezazuen, hamaika urte bete nituen egunera jo behar dut. Egun hartan gurasoek mugikorra oparitu zidaten eta orduantxe hasi zen gure hondamendia. Topikoa ematen du, ezta? Mundu guztiak daki ez dela komenigarria ume bati mugikorra oparitzea, eta hala ere...

Nire kasuan, guztion, etxeko guztion hondamendia ekarri zuen. Orain dela hamahiru urte hasi zen baina orain dela gutxira arte ez dut ikusi, ez naiz konturatu amaierarik gabeko zurrunbilo batean sartuta nengoela, edo geundela, hobeto geundela. Nire zaletasunak familia guztia desegin baitzuen eta orain beranduegi

da. Kaltea eginda dago eta ez du konponbiderik, ez du.

Isilik geratu zen Marlon segundo luze batzuetan, ondoren hasperen sakona egin, ur trago bat edan eta istorioarekin jarraitu zuen.

—Hamaika urterekin, mugikorra oparitu eta egun batzuetara, nire kanala sortu nuen, Marlon1998. Ez dakit zergatik aukeratu nuen izen hori, ez dakit, agian nire izena sekula gustatu ez zaidalako. Egokia iruditu zitzaidan, Marlon. Asmatu egin nuela ere esango nuke, bete-betean. Izenarekin esan nahi dut, asmatu egin nuen kanalari izen hori jartzen. Ez duzue ezagutzen, ezta? Ez zaizue ezaguna egiten, ezta?

—...

—Normala. Ez zarete hain gazteak. Nire jarraitzaile gehienak nerabeak dira.

Nire lehenengo bideoa 2009ko maiatzean igo nuen. Kroketa batzuk, amak egin zizkidan kroketa batzuk, plateretik hartu eta, begiratzen ez zuenean, leihotik botatzen nituen banan-banan.

Leioa itxita zegoen eta kristalean itsatsita geratu ziren. Lelokeria galanta, ezta?

Bai, ba lelokeria horrek izugarritzko arrakasta izan zuen, izugarritzkoa. Ez dakit ezagutzen duzuen, ez dakit inoiz ikusi duzuen baina aste betera milaka ikustaldi zituen eta, nahiz eta bideo bakarra izan, nire kanal berriak, Marlon1998k, ia bi mila jarraitzaile.

Horrela hasi zen dena, kroketa batzuekin. Amak prestatutako kroketa batzuekin, krocketak egin zituen azken aldia izan zela uste dut.

Urte beteren buruan sare sozialetako ume bihurria bilakatu nintzen. Izugarri ospetsua egin nintzen eta nire bihurrikeria haiek geroz eta ikustaldi gehiago zituzten.

Gure bizitza erabat aldatu zen, ez egun batetik bestera, ez, hain azkar ez. Ez ginen konturatu, itsututa geunden, arrakasta, dirua eta sare sozialek sorrarazten duten menpekotasunarekin itsu.

Seme bakarra naiz eta gurasoek, krocketen bideoaren arrakas-

ta ikusita, egiten nituen bideoetan parte hartzen hasi ziren, aholkuak ematen, ideiak bilatzen, bideoen muntaiak prestatzen...

Ezin nuen gehiago eskatu, hamabi urte bete nituenerako gurasoen erabateko arreta nuen, ikaskide eta lagunuen inbidia itzela eta ezagutzen nituen neska guztien mirespena. Kaletik nindoala, jende askok ezagutu eta argazkiak egiteko eskatzen zidan. Oraingo eta orduko edozein umeren ametsa. Batzuk, lagunetako batzuk, saiatu ziren nire bidea jarraitzen, alferrik ordea.

Hamabi urte bete nituenean, mugikorra oparitu eta urte bete beranduago, bideo-kamera on bat oparitu zidaten. Ordurako nire kanalak milaka bisita zituen eta jarraitzaileen kopurua egunetik egunera zihoan handitzen. Bideoek, jakina, geroz eta lan handiagoa eskatzen zuten eta bat-batekotasuna alde batera utzita gidoiak, buruz ikasteko gidoiak, ere egiten hasi ginen.

Urte hartan institutuan hasi nintzen eta nire notak okerre-rako bidea hartzen hasi ziren. Gurasoei, ordea, berdin zitzaiela zirudien. Ez zidaten ia deus esaten, ez zidaten ikasteko esaten,

ez zidaten ikastetxeari buruzko ezer galdetzen. Etxean mintzagai bakarrak, bideoak, kanala, ikustaldiak eta jarraitzaile kopurua baino ez ziren.

—Joder! Tipo ospetsua zara beraz. Alabari galdetu beharko diot ea ezagutzen zaituen –Migelek.

—Hobeto ezagutzen ez banau. Benetan diotsut, hobeto ezagutzen ez banau.

Institutuan aspertu egiten nintzen, guztiz. Geroz eta galduago nengoen ikasgai nagusietan eta orduak, klaseko orduak, hurrengo bideoan pentsatzen ematen nituen. Igandero, gaueko hamarretan, beti ordu horretan, nire bihurrikerien bideo berri bat eskegitzen genuen.

Hamabi urte nituen orduan, gazteagoa ematen nuen ordea. Bederatzi, hamar urte baino ez nituela zirudien. Oso txikia nintzen artean, garatu gabe negoen, fisikoki garatzeke eta, esaten zidatenez, horri esker lortzen nuen hainbeste arrakasta. Barregarria nintzen nonbait. Bideo guztiak esaldi berarekin amaitzen nituen.

Agian esaldia ezaguna izango zaizue. ”Hori ume bihurriren bategin du, nik ez, ni ona naiz”. Ezaguna egiten zaizue? Horrela amaitzen ziren nire bideo guztiak, esaldi horrekin.

—Niri bai. Zeu zara bideo horietan agertzen zen umea?
—Elenak.

—Neuk ere gogoratzen dut. Asko aldatu zara —Ainhoak.

—Pornoak izan balira... —Manuelek.

Migelen barrea.

—Bai, ume hura neu nintzen. Bihurrikeria haiek hiru urte edo iraun zuten, DBHko hirugarren mailaren amaieran ahotsa aldatu, hazi eta bideoak ikustaldiak galtzen hasi ziren arte.

Bideoen gaiak erabat aldatu behar izan genituen orduan. Ume bihurriaren pasadizoek ez zuten jada balio. Ume bihurria nerabe bihurri bihurtu behar izan genuen. Txantxak eta erronkak desberdinak izan behar zuten ezinbestean. Indarkeria, irainak, sexua... badakizue. Gehienak gustu txarreko bideoak.

Horrez gain, geroz eta landuagoak eta egiteko zailagoak zi-

ren eta gure lana, ondorioz, geroz eta nekosoagoa. Orduak eta orduak sartzen genituen prestatzen eta astero eskegi orde, bi astetan behin egiten hasi ginen halabeharrez, horrek lana kenduko zigulakoan eta prestatzeko denbora gehiago izango genuelakoan. Gauzek berean jarraitu zuten ordea.

Gure bizitza infernua zen, nahiz eta ez ohartu. Kurtso hura ozta-ozta gainditu nuen, ozta-ozta, errepikatzekotan ere egon nintzen.

Lagunak, institutu eta auzoko lagunak kalera ateratzen hasi ziren, neskekin ligatzen, festatxoak egiten, baina ni ez. Nik nahiago nuen bideoak ikusten eta iganderoko bideoa gurasoekin prestatzen egon.

Ordurako diru nahiko irabazten genuen eta amak lana utzia zuen. Aitak ez, aitak lanean jarraitzen zuen. Amak supermerkatu batean lan egiten zuen, garbiketa zerbitzuetan, eta soldata onegia ere ez zenez, lan gogorra eta soldata urria, ez zuen zalantzarik izan. Lana utzi eta nirekin jarri zen, jo ta su.

Uda hartan, amak lana utzi zuen urtean, ez ginen inora joan eta inora esaten dudanean inora ez esan nahi dut. Ez ginen etxetik atera, ez Bilbotik, gure etxetik, ez genuela ia kalea zapaldu esan nahi dut.

Orduan hasi zen benetako hondamendia. Ama eta biok egunez lo eta gauzez bizitzen hasi ginen. Ez ginen ia dutxatzen, inork ez zuen etxea garbitzen eta gauak bideoak ikusten eta gurea prestatzen ematen genituen.

Elikadura ere ez zegoen gure lehentasunen artean. Edozer jaten genuen eta edozein ordutan, gose ginenean. Ia beti eskatu egiten genuen: pizza, janari txinatarra, hanburgesak... edo supermerkatuan, mikrouhin-labera sartzeko edozein gauza, etxera ekartzeko eskatu. Udako oporraldia amaitzerako hamar bat kilo gehiago nituen, eta amak beste hainbeste.

*Jabi Elortzaren ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

BizkaIdatz 2023 XV. Literatura-sariaren Oinarri arautzaileak

«Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da»

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, «Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen BizkaIdatz literatura-sariaren bidez, helburu nagusizat du bizkaitarren literatur sorkuntza bultzatu eta sustatu nahi du.

PARTE-HARTZAILEENTZAKO BALDINTZAK (onuradunak):

1) Hamasei urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahal izango dira literatura-lehiaketa honetara; aurkezten dituzten lanek originalak izan behar dute eta ezin dira aurretik argitaratutakoak izan, ez zati batean, ez osorik; gainera, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) 12. artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta eduki behar izango dute.

Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkariak duten pertsonak aurkeztu beharko dituzte. Edonola ere, adingabeak bete beharko ditu onuradunentzat ezarritako baldintzak.

Adingabeak sariaren onuradun izango dira baldin eta adin-nagusitasuna lortzen badute sariaren ordainketa izapidetu aurretik.

2) Gainera, parte hartzen duten pertsona egileek baldintza hauetako bat

bete beharko dute, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan jaioak izatea edo, bestela, Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea foru dekretu hau argitaratzen denean edo foru dekretu hau argitaratu aurretik urtebetez gutxienez Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon izana.

3) Aurreko bi edizioetan, edozeinetan, lehenengo saria irabazi duen pertsonak saririk jaso ez zuen modalitatean bakarrik parte har dezake aurtengo deialdian (euskaraz edo gaztelaniaz), 2023ko XV. BizkaIdatz sarian.

KONTAKIZUNEN BALDINTZAK:

1) Lehiaketa honetan, gaur egungo idazle batek hasitako kontakizun bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak

2) Aurtengo deialdian, parte-hartzaileek kontakizun hauen hasierak hartu beharko dituzte abiaburutzat:

a) Euskarazko atalean, Jabi Elortza Antia idazlearen “MARLON” kontakizunaren hasiera.

b) Gaztelaniazko atalean, Begoña Elorrieta Puente idazlearen “ALUD” kontakizunaren hasiera.

3) Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake, eta euskarazko edo gaztelaniazko kontakizunak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle.

Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

4) Narrazioek, gutxienez, 12 orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, ge-

hienez, 15 orrialdekoa. “Times” edo “Arial” letra erabili beharko da, DINA4 tamainako orrietan idatzita. Eta honako ezaugarri hauek gorde behar dituzte: gorputza, 12; espazioa, bikoitza; gutxienez 24 lerro eta gehienez 32 lerro orrialde bakoitzean, eta lerro bakoitzean, gutxienez, 70 karaktere, salbu eta ortografiazko zeinu jakin batzuen aplikazioaren emaitzako salbuespenak.

5) Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketek derrigorrez bete behar dute ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoaren arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna.

AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak aurkezteko epea, literatura-kontakizunekin batera, deialdi hau eta oinarri arautzaileak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2023ko irailaren 8an amaituko da.

AURKEZTEKO TOKIA:

- Laguntza Erregistroa eta herritarrenganako laguntza bideratzeko bulegoan (Diputazio kalea, 7 zk., 48008. Bilbo, Bizkaiko Foru Liburutegiko beheko solairuan).

- Edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduetako baten bidez (erregistro publikoak, posta-bulegoak, etab.).

- Edo Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez:

<https://www.ebizkaia.eus/eulhasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago deialdi honen laburpen-fitxa.

ESKABIDE-EREDUA ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak eredu ofizialetera egokitu beharko dira. Eredu horiek aipatutako egoitzan bete eta aurkez daitezke:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan, eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta web-orriaren bidez eskuragarri:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Parte-hartzaileak idatzitako kontakizunaren ale bat.

Obraren alea ez da sinatu behar; zenbakia jarrita izango du orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar du; ez, ordea, egilearen identifikazio-daturik.

- Eskabidea ordezkari bidez aurkeztuz gero (nolanahi ere, kontakizunaren egilea adingabea den eskaeretan), ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatatu beharko da.

DATU ETA DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIAK:

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kulturara Ondarearen Zerbitzuak egiaztatatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek pertsona interesdunei, haien ordezkarietara eta, hala badagokio, saria ordaintzeko izapideak egin baino lehen adin nagusitasunera iristen den adingabeari buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako

beharrezkoak direnean, salbu eta berariaz aurka egiten badiote. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira, hori guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikularen babesean.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun-datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, egoitzan edo web orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren bitartez:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

b) Zerga-betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta dagoen udalerria.

Foru dekretu hau argitaratzen den egunean Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta ez dauden baina aurretik erroldatuta egon ziren pertsonak zein udalerritan erroldatuta egon ziren adierazi beharko dute.

Nolanahi ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarrenergarrigarritasunera jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA:

Sariak emateko, deialdi honetarako izendatutako epaimahai kalifikatzaile batek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako kontakizunak, eta epaimahai horrek egingo du kontakizun irabazleen proposamena, honako irizpide hauen arabera:

- Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu gehienez.

- Kalitate literarioa . 3 puntu, gehienez.

- Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu gehienez.

Epaimahai kalifikatzailearen osaera Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren ebazpen bidez izendatuko da, foru agindu bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

SARIAK:

Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie:

- Lehenengo saria, euskaraz: 2.000 euro eta diploma.

- Lehenengo saria, gaztelaniaz: 2.000 euro eta diploma.

- Bigarren saria, euskaraz: 750 euro eta diploma.

- Bigarren saria, gaztelaniaz: 750 euro eta diploma.

- Hirugarren saria, euskaraz: 250 euro eta diploma.

- Hirugarren saria, gaztelaniaz: 250 euro eta diploma.

Aurreko atalean agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat.

Adingabeek sariren bat lortuko balute, legezko ordezkariak izango dira -eta ez adingabeak- jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak; salbu eta

sariaren ordainketa izapidetu aurretik adingabeak adin-nagusitasuna lortzen badu, kasu horretan, bera izango da sariaren onuraduna.

Saritutako kontakizunak edizio berezi batean argitaratuko dira.

Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunek ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak behin betiko ebazpena emango du, sariaren banaketa jasoz, epaimahai kalifikatzailearen ebazpen-proposamenaren arabera, eta parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

JABETZA INTELEKTUALA:

Saria ordaintzen denetik aurrera, hurrengo bost urtetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.

SARIDUNEN BETEBEHARRAK:

1) Saridunek eurek joan beharko dute sariak banaketako ekitaldira, edo ordezkari baten bidez, ezinezkoa bazaie. Ekitaldi horren berri behar bezala emango zaie.

2) Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa ageriaraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako

elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

“Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia”.

3) Nolanahi ere, saridunak beti bete beharko ditu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maia-tzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak, bai eta foru arau hori garatzeko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan zehazten diren gainerakoak ere.

AHOLKULARITZA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko du deialdi honetako sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko.

Horretarako interesdunen eskura dago

http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndare_web_orrian.

Deialdi honen oinarri arautzaileak webgune honetan daude eskuragarri:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>